# Telesforo hil da

Oraintxe deitu naute telefonoz: *"Telesforo hil duk. Biharko zerbait idatz badezakek, hobe".*

Hitzik gabe gelditu naiz. Eta asaldu honetan zer esan ez dut asmatzen. Telesforo betirako hila, ebatsia, isilarazia. Sinetsi ezin! Beste milaka aberkidek gaur sinesterik izango ez duten bezala.

Joan den astelehenean ikusi nuen azkeneko aldiz. Makaldua, hori bai; berrogei-ta-zortzi ordu hartan lotan egon arazia. Bular aurreko oinazea beti hor, esan zigunez. Baina sekula berriro ikusiko ez nuela ez nuen pentsatu.

Telesforo galdurik, zer esan? Nondik has? Ordu gehiegi elkarrekin, aitor gehiegi elkarri, borrokakide maizegi gertatu, orain lasai lerro hauek egin ahal izateko. Adiskide leial bat galdu ondoren, gidari argitu bat itzali ondoren, nekez mintza daiteke inor. Areago Euskal Herriarentzako arrastiri goibel honetan; eta arraildurarik gabeko abertzale seguruak, urri aurkitzen ditugunean.

Zeren Telesforo hori baitzen aurrenik eta beste edozeren gainetik: *Abertzalea.* Alegia, Euskal Herriaren geroa *Nazio askatu* bihurtu gabe, beltz ikusten zuen gizon bat. Tema bakar bat Telesforo-rengan nik ezagutu nuenez geroztik: Euskal Herriaren *Askatasuna.* Baina Euskal Herria, berak behin eta berriz esan ohi zuenez, "Aturri-tik Ebro-raino". Bai txikitan, bai gerla ondoren ere, Telesforo berdin izan baita Iparraldeko eta Hegoaldeko gizona.

Ez dut nik kondatuko gerla aurreko Telesforo hura zer izan zen, liburu bidez baizik ez bainuen ezagutu. 1957-an ezagutu nuen nik, Donibaneko haren etxean. Eta geroztik gutxitan izan dugu geure arteko etenaldirik; eta, horrez gain, inoiz ez hasarre-aldirik edo muzinaldirik txikiena ere. Trinkotuz joan da gure arteko adiskidetasuna 24 urte horretan; eta gaurko egun triste honetan, ohore eta indargarri zait hori.

Gerla aurreko liderren artean Telesforo izan baita gailen, eta ia bakarra, belaun abertzale berria onartzen eta irabazten. Eta hau oso zaila da. Telesforo, adinez eta gizarte-etorkiz, alde guztietatik baitzegoen belaun berritik aldendurik gertatzeko jarria.

1963-an, horretara, Euskara Batua finkatzekotan, Baionan "Euskal Idazkaritza" sortu genuenean, hantxe izan genuen Telesforo, hutsik egin gabe biltzarretara agertzen eta bere iritzia ematen. "Enbata" jaio-berriak garai hartan, Itsasu-ko festetan, beti ere laguntzaile izan zuen bezala. Horrela jokatuz belaun abertzalea ulertu eta babestu nahi zuen; eta belaun abertzale berri hori, urte haietan, ETA eta Enbata zen, haren ustez.

Handik urte batzutara, "estado de excepción" delakoen saila hasi zenean, eta ihes egindako etarren soka lotu, "Anai Artea" sortu zuen; eta, hau eginez, bere izen guztia jarri zuen balantzan, guztiz gaitzetsiak eta mespretxatuak ziren gudari berrien alde, ahal zuena bederen erantsiz.

Ipartarrekin, artean, lotura pertsonalak eginak zituen: herri-antzerkia bultzatu baitzuen aurreko urteetan. Ordudanik zuen Aita Lartzabal adiskide eta borrokakide; Zokoako erretora ere antzerki-bultzatzailea baitzen 1960 baino lehenagoko urte haletan.

Eta 1971-an, Burgos-ko Auzi apartak jasotako zalaparta baliatuz, "Frente Abertzale" bat sortzeko asmoan hartu zuen parte. Orduan, eta geroago ere, Telesforok ez baitzuen gure herriaren askatasunerako bidean, abertzale guztien arteko batasunaz beste biderik. Baina saialdi hura gaizki gertatu zenean, bota egin gintuzten gu biok Iparraldetik. Eta Baionako Katedralean ETA-ko 35 lagunekin gose-oporra egin ondoren (eta gose-kide haien artean izan genituen Eustakio, Goikoetxea, Korta, eta bizia eman duten beste batzu!). Gers-era eraman gintuzten, "epe baterako bakarrik". Eta han, Nogaro-n, Salles d'Armagnac-en, Lanne-Soubiran-en, bost hilabete luzez, buruz buru bizi izan nintzen Telesforo-rekin. Bost hilabete haietan lotu zen adiskidetasuna eta konfiantza ez ziren sekula histu. Orduantxe, eta Telesforo-rekin kapituluak solastatuz, idatzi nuen "Proyecto de Manifiesto Vasco" delakoa; "Frente Abertzale"aren beharra funtsatu nahiz.

Geroago ere, Franco hiltzean, bigarren saio bat egin zuen Telesforok, abertzaleen arteko batasuna lortu naiz; baina, bigarren aldiz ere, frakasatu egin zuen. Geroztik, eta batasunaren ametsa ahaztu gabe, gaurko gudarien alderdia hartzen zuelarik, azkenean ETA-ren gizon gisa agertu arte. Jakina: bota ezin zuten PNV-koek Alderdi-tik, eta honek sekulako sofrikarioak eman zizkion; Telesforo, hala ere, "jelkidea" baitzen. Baina jelkide osoa; eta, oroz gain, abertzalea eta independentista.

Geroztik, "Askatasunaren Ibilaldian" Hegoaldean bere agerraldia egin zuenez geroztik, abertzale guztiek dakite Telesforok zer egin duen; bere buruaz erabat ahazturik, lehenengo lerrokadan egon baita behin eta berriz.

Lehenengo lerrokadan Nanclares-erako bidean jarri zen bezala. Eta orain, uste dudanez, penagarri iruditzen baitzait orduan ere beste guztiok irten eta Telesforo bertan utzi behar izana. Eta eritu arte!

Abertzale aparta, zinez, Telesforo. Ordaindu ezina. Hizlari ezin hobea.

Baina, bukatu aitzin, eta haren oroitzapenetan, zer hoberik bere helburu nagusiak gogoraztea baino?

1 — *Abertzaletasuna.* Euskal Herria *Nazio* bat da, eta *Askatasunik* gabe ez du irtenbiderik. Baina Euskal Herri *Osoa* nazio bihurtua: Iparraldea, Hegoaldea; eta *Euskara* oinarri (Telesforo erabat baitzen euskaltzalea ere).

2 — *Ideologiekiko uzkurtasuna* — Gure baserritarrengandik bertago zegoen Telesforo, askok uste eta nahi luketen baino. Telesforok ez zuen ideologietan batera sinesten; eta horregatik ikusten zituen bertan Argala, Eustakio edo Saseta. Telesfororen ustez euskal gudari guztiak *oso antzekoak* dira funtsean; nahiz teorizaleek eta super-ideologiztek besterik pentsatu. Eragile nagusi eta ia bakartzat Telesforok *Abertzaletasuna* ikusi uste zuen. Gauza bera uste zuen ETA-z eta Herri Batasuna-z.

3 — *Askatasunerako bidearen latza* — Gure gaitzak sakonegi dira, Telesforo-ren ustez, konbinazioz, botoz, eta maniobrez konponduak izateko. Gure Aberria altxako bada, zion Telesforok, aldapan gora, guztiz gora, altxako da. Bide leunik ez dago gure herria bere leiza-zulo sakonetik irribarrez eta losentxaz ateratzeko.

Horra hor, ene uztez, Telesfororen ideia nagusiak. Hein batez bederen, egia aitortzeko, neureak ere ditudan berak.

Nekez ahaztuko zaizkit astelehenean esan zizkidan azkeneko hitzak: *"Triste ala pozgarri izan batzuentzako eta besteentzako, ETA-k ez du, berak bakarrik, aski indarrik Euskadi askatzeko; eta PNV-ak ere ez".* Ondorioa zein den garbi dago; baina ez zuen Telesforok esan. Halako lotsa bide zuen memento honetan hori proposatzeko.

Baina Madrillen ez ditugu horrelako lotsak ikusi egun hauetan. Nahiz arriskutan dagoena askoz ere gutxiago izan España-rentzat, Euskal Herriarentzat baino.

Irakurleak pentsa eta erabaki beza.

Euskal Herriak eman dituen gizonik handienetako bat galdu dugu. Haren mezua, agian!, entzuna izango ahal da azkenean. Eta haren mezua hau zen: *Gora Euskadi Askatuta!*

**TXILLARDEGI**




# Agur Teles

Cada persona tiene un orden de valores morales y políticos en su preferencia y en su opción. Y es hora de definir este orden de valores en el amigo y el maestro que hemos perdido todos con la retirada —jamás triste— de Telesforo de Monzón.

El ansia más grande de Telesforo, su pasión y su permanente inquietud lo constituyó la PAZ. Si señores, la PAZ. Con mayúsculas, claro está, con exigencia, con justicia y por lo tanto con incomprensión, con calumnias y con falsedades, que naturalmente el tiempo ha ido y va transformando en necedades. Teles era tan amante de la paz que ayudó, entendió y amó a los gudaris de Euskadi.

El abertzalismo, el amor al pueblo vasco era la segunda característica de Monzón. Fue el político que más profundamente comprendió y expresó el "problema" —el drama— de los navarros. Fue el único histórico que llegó a comprender que hoy el grito de: ¡Nafarroa, Euskadi da! es el "Gora Euskadi askatuta" de antes y que el Estatuto de la Moncloa dificulta, obstaculiza y envilece este problema nacional.

Y Teles era tan buen político, tan bueno, que comprendió perfectamente que en Euskadi la izquierda abertzale era una instancia absolutamente necesaria para crear políticamente la dinámica de pueblo y para levantar nuestra patria. Contribuyó importantemente a la construcción de esta izquierda no sólo desde su llamamiento a la unidad que implicaba el reconocimiento expreso de su existencia y futuro, sino también desde su verdadera militancia.

No soy testigo de muchos años ni muchos hechos de Telesforo. Quizá tres o cuatro. Pero permítaseme citar solamente uno: el momento de su decisión de formar parte de la Mesa Nacional de HB. No era un momento fácil, ni mucho menos. Era una nueva militancia para un confeso jelkide.

Puedo dar fe de su profundidad política y poética, de su profundidad patriótica en el análisis de muy diversos aspectos; pero sobre todo uno: muchos iban a intentar aprovechar de la lucha de ETA; y el momento de aprovecharse no había llegado, sino que era tiempo de seguir arrimando el hombro.

Agur Teles , el más joven de los políticos con que he hablado.

**Patxi ZABALETA**

# Hil zarela diote

Telesforo Monzon, hil zarela entzun dut eta hotz geratu naiz, hileskorra zarela baitirudi. Eguzkia erori dela esaten badidate ez dut sentitzen, ez baitut sinesten. Hil zarela entzun dut eta irribarra egingo dut. Irratiak airean dabiltza; hil zarela esanez. Egunkariak ere ala kaleratu dira, zure heriotza bizkarrean harturik. Barregura emanten dit. Kaixo Telesforo, hil zarela diote. Burutik daude.

Askorentzat ziri nabermena zara. Zeure burua erakusteagatik omen zebiltzan. Nola edo ala gaibendu nahi omen zenuen. Bai noski. Bide hori beste guztientzat ere irekia dago. Horren bekaitzez badaude, makila aixago dator burura urrezko ixapela baino. Baina zertarako urrea?

Batzuk diote ondasun sua zinela. Aitortzen dizut aberatsik ez dudala gizakidetzat konsideratzen. Nik ez dut zure ondasunik kontatu. Bai ordea zer egin duzun eta zenbat urtetan. Zuk aina eta askoz gehiago daukatenek geltoki berean zeukaten gurdia. Gaur ere gurdi hori hor dago, hor dabil. Zergatik ez dute beren bururik erakutsi nahi? Orain ez zarela diote.Burutik daude.

Zer besterik nahi zuten, beren kaxkartasuna estaltzeko.

Agur Monzon. Hil zarela sinetsi behar ba da, sinetsiko dut. Hainbeste ez zen gauza sinetsia gara lehen ere. Hil zarela sinetxi behar badut. Piztu zarela ere sinesten dut. Eta ez hirugarren egunean. Irratiek eta egunkariek nahi dutena esan bezate. Zuk eta nik badakigu nola den hori. Noiz egingo dugu urrengo berriketaldia? Laster arte. Neuk deituko dizut.

**Xabier AMURIZA**




# En el exilio

Fue durante el período del exilio, sobre todo, cuando nuestra amistad se hizo fuerte. Nuestras diferencias, no obstante, hicieron que en alguna ocasión nuestra relación se enfriara. A pesar de esto, he admirado a Telesforo sobre todo por su espíritu joven, espíritu poeta y por su visión política. Quisiera destacar dos hechos que dicen de su actitud libre en lucha por la libertad.

Era el año 69 y se trataba de crear en Donibane Lohitzun un medio para la cogida de los refugiados. Se buscó el apoyo del PNV, que tenía posibilidades económicas e influencias a nivel político. Telesforo hizo de intermediario. Tras muchas gestiones, la respuesta del partido fue la de que ellos tienen sus propios cauces para ayudar a "sus exiliados". Telesforo nos lo comunicó con harta tristeza. Pero él estaba decidido, por su parte, a colaborar a toda costa en la creación del organismo de ayuda al refugiado, que enseguida se llamó "Anai Artea". Esto suponía para él una importante ruptura con su partido. Lo hizo, en definitiva, consciente de que la lucha por la soberanía nacional y la autodeterminación, pasaba ya por la savia joven de los nuevos luchadores de Euskadi.

En segundo lugar, lo que ya fue determinante, fue la segunda huelga de hambre de los refugiados en la catedral de Baiona, a la que se unió Telesforo por la consecución del Estatuto del Refugiado. Significaba su decidida actitud por aquellos que, continuando la lucha de sus padres con nuevas ideas y formas, buscaban la independencia y el socialismo.

Mientras otros, que caminaron cerca de él, pasarán tristemente a la historia, Telesforo, defensor acérrimo de los derechos e independencia de Euskadi, ha pasado como hito, siempre joven, que da luz a la propia historia.

**Josu BARANDIKA**